

[Azala](#) [Harpidetu zaitez!!](#) [Harremana](#) [Publizitatea Nabarran](#) [Creative Commons](#)

Mari Zipriztinek ez du zorioneko galeperri! Testua **Nunila López Salamero** Marrazkiak **Myriam Cameros Sierra** Itzulpena **Mikelitzi** (Itziar de Blas / Mikel Garmendia)

Racimo saria 2009

txalaparta

Nabarra.com

- o Antzerkia
- o Bidaiak
- o Elkarrizketak
- o Erakusketa birtuala
- o Erreportajeak
- o Iritzia
- o Izan ginena
- o Liburuak
- o Musika
- o Pantilari itsatsita
- o Artikulua

Musika



Munduaren_Leiho



nork uka dezake?

Leihotikan

Multimedia

- o **Irudiak**
- o Bideoak

Azala \ Erreportajeak \ «Haurrek gnomoak ikusten dituzte, helduok arratoiak ikusten ditugun tokian»

«Haurrek gnomoak ikusten dituzte, helduok arratoiak ikusten ditugun tokian»

Ion Orzaiz Galarza-k idatzia

Toti Martinez de Lezea · Idazlea

Testua: Ion Orzaiz Galarza

Argazkia: Josu Santesteban



Zurrumbilo baten antzera, Toti Martinez de Lezea idazlea alde batetik bestera dabil egunotan, bere azken liburuak aurkezten. Negurako bi nobedade dakarzki besapean: "Otalorea" eleberri historikoa, eta "Nur eta irlandar gnomoa" haurrentzako liburua.

"Otalorea" Durangoko Azokan aurkeztu zenuen. Harrera ona izan al zuen?

Irakurleen erantzuna bikaina izan da, bai euskarazko edizioan eta baita gaztelaniazkoan ere, bikaina benetan.

Zuk, dena den, publiko fidela daukazu...

Bai, baina benetako erronka liburu bakoitzarekin publiko gehiago lortzea da. Irakurle fidelak maite ditut, jakina, baina nire libururik inoiz irakurri ez duen batek nire nobela bat hartzea oso garrantzitsua da.

Zure kasua nahiko ezohikoa da, "berandu" hasi baitzinen idazten...

...edo agian esateko zerbait topatu nuenean soilik hasi nintzen idazten, eta ez lehenago. Duela hamabi urte izan zen hori. Idatzi nuen lehen liburua "La abadesa" izan zen, baina hori ez nuen hasiera batean argitaratu. Niretzat soilik egin nuen, eta gustura gelditu nintzenez, bigarren bat idaztea otu zitzaidan: "La calle de la judería" (Ttartalo, 1998); eta hori bai, hori argitaratu zidaten.

Eta arrakasta etorri zen.

Nik espero ez nuen arrakasta. "La calle de la judería"-k harrera ona izan zuen eta, inolako marketin edo publizitaterik gabe, arrakasta itzela lortu zuen. Halaxe etorri ziren ere bigarrena, eta hirugarrena, eta laugarrena...

Hasierako ilusio hori mantentzen al duzu?

Bai, eta mantentzeko gai ez naizen mementoan bertan, idazteari utziko diot.

Euskara kultur elkargoa



Koldo Mitxelena



Bilatu

Irakurleentzako idazten duzu, ala zeure baitarako?

Nik ederki pasatzen dut nire baitarako idazten. hori egia da, baina hamar urteren buruan, publikoari gustatuko zaionari buruzko iritzia badut, jakina baietz. Idazte batek irakurleak behar ditu, bestela ez du zentzurik idazteak. Zeure buruarentzako soilik idazten baduzu, ez zara inoiz argitaletxe batelara joango. Liburua etxean gordeko duzu, zuretzako. Eskuizkribua argitaletxe batera bidaltze hutsak testu hori norbaitek irakurtzea nahi duzula esan nahi du. Eta zoragarria da pertsona batek zure lana irakurtzen duela ikustea, eta ez bakarrik liburu bat... bi, hiru, lau, edo den-denak irakurtzen dituzte batzuk. Baita haurrentzako liburuak ere! Hori oso polita da.

Nolako izan zen "Otalorea"-ren sortze-prozesua? Istorioa buruan zeneukan, ala lehenbizi garai historikoa aukeratu zenuen?

Bi anaien arteko adostasun eza izan zen nobelaren oinarria. Hori familia gehientsuenetan gertatzen da, ezta? Ez dago lehengusu, izeba edo aitona batekin haserretu ez den pertsonarik. Oso kontu arrunta da, batez ere herentziak, erlijioa edo ideologia tartean sartzen direnean. Gero, kokalekua hautatu nuen: Oñati. Gustatzen zait nire istorioak jendeak ezagutuditzakeen tokietan kokatzea. Zehazki, Araozko Bailara aukeratu nuen. Azkenik, garaia finkatu nuen: III. Gerra Karlista. Eta zergatik? Bada Oñatin oso urte bereziak izan zirelako horiek. Karlos VII erregegai karlistak bere gorlea ezarri zuen bertan. Moneta, inprenta, justizia auzitegia... denetarik zegoen Oñatin XIX. mende hasieran. Elementu guztiak nituen, beraz, istorioa garai eta toki horretan kokatzeko, eta halaxe egin nuen.

Dokumentazio lan itzela ematen du...

Bai, artikulua eta liburu asko irakurri behar izan ditut, baina nik ez dut historia idazten. eleberriak idazten ditut. Honekin ez dut esan nahi historia asmatzen dudunik, ezta pentsatu ere, baina historia oinarri gisa hartzen dut, nire istorioa kontatu ahal izateko. "Otalorea"-ren kasuan, ez dut III. Gerra Karlistari buruz idatzi. Garai eta testuinguru horretan bizi ziren pertsonak batuzten pasadizoak kontatu ditut.

"Otalorea"-rekin batera, "Nur eta irlandar gnomoa" haurrentzako liburua ere aurkeztu berri duzu. Zure lehenbiziko esperientzia da haur literaturaren esparruan. Nolako izan da jautzia?

Oso esperientzia ederra izan da. Horren ederra, ezen nobela-sorta oso bat egiteko asmoa dudala Nur pertsonaiaren inguruan.

Liburuko protagonista zure biloba dela irakurri dut...

Bai, nire biloba da, eta gure familiako gainontzeko kideak ere azaltzen dira modu batean ala bestean: nire senarra, alaba, suhia, zakurra eta ni neu. Aitona pozarren dago, liburuan agertzen delako.

Eta bilberako ideia nagusia nondik atera zenuen?

Ipuinean azaltzen den gnomo irlandarra, berez, etxean genuen arratoi bat zen. Bilobari esan nion hura gnomo bat zela eta, tira, sinetsi egin zuen. Gnomoa nolako zen, non bizi zen eta nondik zetoren asmatu behar izan nuen gero, eta pixkanaka- pixkanaka, ipuina idatzi nuen. Finean, alegia bat da: haurrek gnomoak eta izaki magikoak ikusten dituzte, helduok arratoiak besterik ikusten ez dugun tokian.

Haur literatura idazterakoan, didaktikoegia izateko arriskua dago...

Bai, baina horretatik ahalik eta gehien urruntzen saiatu naiz. Ez nuen didaktikasunean erori nahi, ezta txepelkerian ere.

Kritikari askok eleberri historikoa deitoratzen dute. Nola hartzen dituzu kritikak?

Horrek kritikari zenbaiten kultura eza frogatzen du, ene ustez. Eleberri historikoa horren ezdeusa iruditzen bazaie, gaide diezaiotela Tolstoi, Victor Hugo edo Homerori.

Zabaldu



Copyright-a © 2010 Open Source Matters. Eskubide guztiak gordeta.

Joomla! GNU/GPL lizentziapeko software librea da.